

GAUR EGUNGO BERDEGUNEAK AZPEITIAN



Berdeguneek klima aldaketa leundu eta horri egokitzeko prozesuak hobetzen dituzte.

Horregatik izugarizko garrantzia dute geroz eta artifizialagoak diren eremu gris eta gogorren kontrapuntu bezala. Izatez landatutako azalera urbanoek proportzionalki eraikitako azalera baino handiagoak beharko lukete, baino XX. mendean zehar garatutako hirigintza ereduak ibilgailuei eman die lehentasuna, berdeguneen eta lurren hedadura mugatuz.

- **Azpeitiko berdeguneen egoera ezagutzeko asmoz, ikasleek horiek aztertu eta baloratu dituzte. Udalak egindako berdeguneen mapan oinarrituta (mapa emango zaie), ikastetxe bakoitzak berari egokitu zaion eremua aztertuko du ondorengo elementuei erreparatuz:**

Taldeka banatuta, erantzun itzazue ondorengo galderak

Berdegune mota	Kopurua	Ezaugarri bereziak
Lorategia		
Ibilbidea		
Kaleko arboladia		
Besteak (zehaztu)		

GAUR EGUNGO BERDEGUNEAK AZPEITIAN

1- Auzo horretan ba al dago berdegunerik? Bai Ez

2- Erantzuna baiezkoa bada, zer motatako berdeguneak daude?

3- Zein dira berdegune horien elementu nagusiak: loreak, belarra, zuhaitzak, zuhaixkak, belardiak, soropila, lurzorua, e.a.?

4- Zer egoeratan daude? Ona Txarra Hobetu beharra

(Arrazoitu erantzuna)



5- Zer funtzio betetzen dute zure ustez berdegune horiek?



6- Zertan hobetu dezakete herria?

GAUR EGUNGO BERDEGUNEAK AZPEITIAN

7- Ba al dute eraginik gure osasunean? Zer onura sortzen dituzte herritarren osasunean?

8- Nork planifikatzen ditu herriko berdeguneak eta nola?

9- Zein berdegune egokitu dira Azpeitian azken urteetan?

10- Berdegunerik desagertu al da Azpeitian azken urteetan? Zeintzuk? Zergatik?

11- Zer ondorio ekar ditzake herrian berdeguneen desagertpenak?

GAUR EGUNGO BERDEGUNEAK AZPEITIAN

Ondoren, ikasleek eremu desberdinetako emaitzak konpartitu eta konparatuko dituzte Azpeitiko egoera orokorra ezagutu ahal izateko:

- Nahikoak al dira oro har herrian dauden berdeguneak?

- Auzo desberdinek konparatuz gero, non daude berdegune gehien eta non gutxien?

- Herriko zein eremutan gehitu beharko lirateke?



GAUR EGUNGO BERDEGUNEAK AZPEITIAN

laz klima aldaketa gaia jorratzerakoan hartutako konpromisoak betetzen ari al zarete? (begiratu eta bete eranskinak)

- Uste al duzue konpromiso horiek beteta gure osasuna hobetu dezakegula?

- Konpromiso berririk hartzeko premiarik ikusten al duzue?

- Zer eskatuko zeniokezte Azpeitiko Udalari berdeguneen inguruan?

- Nola lagundu dezakezue berdeguneak ondo mantentzen?
